

ANAITASUNA

226. zenb.

1972.eko Urtarrila 15koa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12
Tel. 43 18 37

Elkar - hizketa

Debako arte lantegia

Bere garaian aipatu nuen bezala, Arrasateko* euskal liburu eta diskoen azokan,* stand-ik interesgarriena, Debako arte lantegikoek muntatu zutena izan zen. Honengatik, eta lantegi horretaz lehendik ere zerbait entzun nuelako, stand-aren antolatzaile batengana hurreratu nintzen. Haren izena Koldo Aspiazu. Biok batera ikusi

genituen hango lanak: fundizio, egur grabatuak, harri eta egur lanak, eta abar. Gehiago gabe, galdezka hasten natzaio:

—Noiz eta nola hasiak zarate lantegi horretan?

—Orain dela bi urte eman zitzaion hasiera. Egia esan, ba zegoen, orain 20 urte, artista batzuk batzeko asmoa. Hau dela eta, «Artes y Oficios» eskola ireki zen, baina arteari bereziki* jarraitzeko posibletasunik gabe.

—Non dago lantoki hori?

—Orain dela 40 bat urte, eta Debako semea zen amerikano batek emandako diruarekin, etxe haundi bat eraiki zen. Etxe hau errepublika denborako agintariak bahitu* egin zuten. Gaur herriak, bere indarrez eta ekinenez, bere esku du berriz.

—Diru laguntzarik ba ote duzue?

—Lehen aipatu* amerikano horrek utzitako diruarekin, «Asociación para el Fomento de la Enseñanza y la Cultura» deritzan elkarte sortu zen. Elkarrekin honetaz urtero uzten du diru mordo bat gure esku.

—Bestalde, zer harreman duzue elkarte horrekin?

—Ez dugu harreman berezirik. Elkarteko ordezkaririk bat dugu lantegian, Patxi Aldebaldetrekua hain zuzen, eta honekin dira tratatu guztiak.

—Nork eginak dira, hemen agertzen diren lanak?

—Eskola edo lantegian dauden guztiek, ikasle eta irakasleek, egiten dituzte lanak.

—Nortzuk dira irakasleak?


—Ez dago, preseski,* irakasle talderik. Gehien laguntzen daukutenak, Oteiza, Ibarrola, Zabaleta, Ziriako Andonegi, Iñaki Sodupe, Iñaki Arrate, Larramendi eta beste batzuk dira.

—Aipa itzazu lantegi horretako lanik berezienak.

—Orain bi urte, haurrekin hasi ginen; eta lan honi izen berezi bat jarri genion, hots,* «Heziketa,* arte biziaren bidez». Horretarako, buztina,* zura,* harria, musika eta abar erabiliz gainera, jinasia berri bat sortarazten ari ginen, bai eta ideia berriak moldatzeko bideak erakusten ere.

—Zer da zuentzat jinasia berria?

—Paradoja bezala hartuko duzu; baina jinasia berria osatzen dutenak, Euskal Herriko kirola* zaharrak



BILBO

UMEEN JAIALDIA

Ume jaialdi eder bat egin zen, Gabonetan, «Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan. Ihaz* baino jende gehiago. Baina ez zen bete saloia. Ea datorren urtean lortzen dugun hori.

Umeak teatro egiten, kantatzen, dantzatzen eta txistua jotzen; eta haiekin Maurizia eta Leon alboka eta pandero jotzaileak eta Jon Enbeita kantaria. Azken honek egiazki frogatu* zuen, gaurko euskal kantaririk hobere-netarikoa dela, bai hitzen edertasunez eta bai kantatzeko teknikaz.

PROZESATUA

«Orden Público» delakoaren aginduz, tribunalek prozesatu egin dute Gabriel Aresti, orain urte bete inguru argitaratu zuen «Harrizko Herri Hau» liburuagatik.

Irakurria dut akusazioa: separatismora bultzatzen duela eta hemen bizi diren erdaldunak atzerritar bezala tratatzen dituela.

Gogora dezagun, liburu hori «Harri eta Herri»ren jarraipena dela, eta hark «Premio Nacional de Literatura» irabazi zuela.

LIBURU BERRIA

Erreford, eta nolakoa!

Liburuaren titulua, «Bai mundu berria». Egilea, Aldous Huxley. Euskaratzailea, Xabier Amuriza, Zamorako gartzelan dagoen apaiza. Editoriala, LUR.

Liburu honen kategoriak ongi frogatzen* du, nola doan aurrera euskal literatura.

Mundu utopiko bat azaltzen dauku, eta azken orrialderarte tentsioan dago irakurlea. Baina Basatiaren burruka eta harenganako inkonprentzioa ez dira hain utopikoak, gaur gaurkoak baizik.

«ZORIONAK»

Aurreko urteetan baino gehiago eta handiago dira, dendariak jarri dituzten «Zorionak» letreroak. Has. «El Corte Inglés»etik eta azken tabernaraino, Bilbo osoa bete dute zorioneko «Zorionekin».

Gu benetan pozten gara, dendarien egintza horrek argiro adierazten baitu, euskararen kotizazioa gorantz doala.

ERREGALUAK

Familia askotan, aurten, Errege eguneko erregaluak Gabonetara aurreratu dira, ikastolen eskariari kasu eginez.

Aldakuntza honek, zuzena eta zentzuzkoa izanik, harrera ona izan du.

OLENTZERO

Ohitura zahar hau galduta zegoen Bizkaian; baina gazte talde batzuek ahaleginak egin dituzte, berriz berpizteko.

Dakigunez, Olentzero bi atera dira Bilbon Gabon egunean: Deustun eta Santutxun.

BERTSOLARIAK

Zer gertatzen da bertsolariekin? Hauen jaialdi gehienak debekatuak izaten dira; eta horrek arrisku bat dakar: gure kulturako landaririk baliotsuenetariko batek fruturik ez ematea, behar den moduan hazteko aukerarik ematen ez zaiolako.

EUSKAL DISKOAK

Euskal diskoak ihaz baino gehiago saldu dira aurten Bilbon. Jon Enbeitarena izan da gehien saldu dena: 1.100 ale hamabost egunetan.

XABIER GEREÑO

MUNGIA

«Artetxe» lantegia

Orain dala hilabete, «Artetxe» lantegia aipatu genduan lerro honeetan, hango «Santa Barbara» jaien berri emanek. Gaur, berriro aipatzea merezi dauka uste dogu, bere zilarrezko* ezteiak* ospatu ditu eta. Abenduaren 29a, egun ederra izan zan lantegi horretako langileentzat. Izan ere, egun horretatik gora, zahartzarorako eta gaixoaldietarako laguntza on batzuk izango ditue. Ba dabe non ikasi Mungi aldeko beste lantegiek!

Euskal jaialdia

Urtarrilaren* 2an, ikastolaren laguntzarako ospatu zan Mungian jaialdi bat. Jaiak ez eban gauza berririk izan. Txistulari eta dantzariak lehendik ikusiak genduzan. Ez zan ez ikastolarik ez gure arazo berezirik aipatu. Zorionen «Polita zarela», Estitxuren «Bakarrik», Josu Zabalondoren «Josepa Erramona» eta beste hainbat kantuk ez daukue alderdi horretatik ezer ere esaten. Mungiko Jon Ormaetxe izan zan presentadorea. Asko poztu ginen bera ikusteaz, aspaldion plaza gizon legez* agertu barik egoen eta. Ondo bete eban bere eginkizuna, nahiz eta lehen aipaturiko huts berean jausi.

«Jose Luis Costa» futbol zelaia

Abenduaren 12tik hona, zelai berri baten jabe dira Mungiko futbolariak. Zelai hau egiteko, herri osoaren laguntza jaso* zan, eta Bizkaiko futbol federazioak ere diru mordo bat eman eban. Orain arte, zelai honek «Legarda» izena jarrita eukan; baina, azken orduan, federaziori herriaren esker ona erakustearren, haren presidentea izan zan Jose Luis Costaren izena hartu dau. Federazioak emandako diru hori, urte batzuk barru ordaindu beharrekoa da.

«San Antontxu» jaia

Hilabete honen 18an ospatuko da Mungian «San Antontxu» jaia. Jai honetako aipagarrienak, Txerriki Sariketa eta pelota partiduak. Tabernarientzako egun berezia.

JOSU

ARRATIA

Arantzazuko antzerki taldea

Arantzazun, antzerki talde bat sortu berri da; eta lehenengo agertaldia abenduaren 11ko arratsaldean egin eban herriko elizan, «Gabonetako ikuskizuna» eskainiz.

Hauxe da gure lehenengo teatro lana, 1759. urte inguruan Pedro Barrutiak edo idatzia. Egun honetatik aurrera, Arratiko beste herri batzuetan ere egingo dabe teatro hau; eta Arratitik kanpora ateratzeko asmoa ere ba dauke.

Areatzako kaleak

Areatzan,* kaleak konpontzen hasi dira; eta ederto, gainera. Gauzak eginez gero ikusten da, zelan herri honetako agintari gazte eta gogotsuak lan egiten dauan.

Parroko berria Arteagan

Arteagan parroko berria izendatu dabe. Arratian oso ezaguna da bere lan zaletasunagatik. Jaun honen izena Joan Jose Azurmendi da (sakramentinoa bera); eta orain herri bi daroaz: Arteaga eta Arantzazu.

«Oihartzunak» taldearentzat

Azkenez gauza bat baino ez, eta berau «Arratiko Oihartzunak» taldearentzat. Irakurri eizue, Aurtiz-ek ANAITASUNAREN 224. zenbakian idatzitako «Bide berrien bila» artikulua. Mesedegarri izango jatxue.

XIRI

Bilboko gotzain berria

Añoveros Ataun jauna dugu Bilboko diosesi gazte honetako hirugarren gotzaina. Lehena, Casimiro Morcillo madrildarra izan zen. Bigarrena, Paulo Gulpide nafarra. Azken hau hil zanetik, Jose Maria Zirarda jauna izan da aministradore apostolikoa, baina ez gotzain titularra. Añoveros dugu, beraz, Bizkaiko eliztarren hirugarren gotzaina.

«Ondo etorria, Jaunaren izenean datorrena»

Añoveros jaunaren izendatzeari, hala ere, ez dio jende guztiak harrera berdina egin. Hona hemen, goi mailakoen izenean egin zaion ongietorria:

«Egun batzuk barru, Bilboko gotzain berria helduko zaiku... Bizkaiko herriak —sinesmen sendokoa berau— da baki, gotzain berria apostoluen ondorengoa dela, Jainkoaren herriaren zerbitzaria dela, eta Aita Santuak berberak izendaturik datorkigula... 'Ondo etorria, Jaunaren izenean datorrena'» (El Correo Español, 71-XII-26).

Apaizen ongietorria

Bizkaiko apaizik gehientsuek ba zekiten, egunkarrietan berri hori agertu baino lehentxoagotik, Añoveros Bilbora zetorrela, eta era berean, Zirarda Córdoba zihola. Honen eta beste arazo batzuen eraginez, hainbat bizkaitar apaiz bildu ziren, gertaera horri eta beste zenbaiti* zer erantzun eman deliberatzeko. Beraz, egunkarrietan berri hori agertu zenean, ba zuten apaizek esku artean, eritzi bat emateko estudio eta erabakirik nahiko.

Eta horrela izan zen. 196 apaizek izenpeturik, agiri bat zabaldu zen herritarren artean, euskaraz eta erdaraz, «Goztzen berria datorrela eta, Herriari Agiria» izenburuarekin. Agiri honek, funtsean,* hiru alderdi ditu:

- gotzain hau ez du Bizkaiko kristau herriak hautatu.
- gotzain honek ez du Euskal Herria ezagutzen, azken hogeitau urteotan gugandik urrun bizi izan baita.
- gotzain honek, agintarien alde zin* egin duela rik, nolabait eskuak loturik ditu.

Hori dela eta, 196 apaizok agiri horretan beren jarrera* ezaguterazten dute gotzain berriari buruz. Haietarik:

- 77k, gogo txarrez baina, hartzen dute.
- 84ek, gogo txarrez hartuz gainera, zenbait kondizio jarriko diote.
- 35ek agerian eta betiko alboratuko dute.

Nola izendatzen diren gotzainak

Kristau herriaren gotzainak nola izenda, Erromako Elizaren eta Espainiako Estatuaren arteko tratu batek seinalatzen du. Tratu edo konkordatu horren arauera,* Espainiako «Ministro de Relaciones Exteriores» delakoak eta Aita Santuaren Nuntzio Apostolikoak, biek elkar harturik, sei elizgizon seinalatzen dituzte gotzangai bezala. Sei hoietarik, Aita Santuak hiru aukeratzen ditu. Eta, azkenik, hiru hauetarik, Espainiako lehen buruzagiak bat

—edo bat ere ez— hautatzen du. (Inor ere hautatzen ez badu, joko berdina egin behar da berriro). Gero, aukuratua izan den gotzainak, Estatuaganako zintzotasunezko zina* egiten du, konkordatuak agintzen duen arauera.

Bi gotzain laguntzaile eta Euskal Eliz Eskualdea

Bizkaiko 196 apaizekin batera, Kontseilu Presbiterial delakoak ere ez ditu onartzen, Bilborako gotzain izendatze horretan jarraitu diren bideak. Horrela, Bizkaiko apaizik gehientsuak —goi mailakoak ere barne— ez daude bide hoiekin konforme, eta bai kexu, Aita Santuari bidali dioten karta batean aditzera eman duten bezala. Hori guti bailitzen, ba dago eliztarren artean halako ondoez larri bat.

Nuntzio jaunak berba eman ei* du, hala ere, gotzain laguntzaile bi izango dituela Añoveros jaunak. (Goztzen laguntzaileak izendatzeko, ez dira jarraitu behar, aipaturiko konkordatuak seinalatzen dituen pausoak). Gotzain laguntzaile hoik,* Bizkaia errotik ezagutzen dutenak izango lirakeke, Bizkaiko apaizen eskabideei jaramonik egiten bazaie behintzat.

Era berean, Nuntzio jaunak berba eman ei du, euskaldunek Eliz Eskualde* bat bakarra osotuko dutela. (Gaur egun, Bizkaia eta Araba alde batetik daude, Burgoako artzobispaduari lotuak; eta bestetik, Gipuzkoa eta Nafarroa). Euskaldun guztiak batera bilduko lituzkeen eliz probintzia bat atonduz* gero, Elizak Euskal Herria ba dela aitortuko luke, eta egiaz errespetatu eta babestuko.

A. Z. GISASOLA

daude, **dagoz**
dio, **dautso**
diote, **dautsoe**
zaie, **jake**

zaiku, **jaku**
zalo, **jako**
zekiten, **eklen**
zihoan, **joian**

Euskal kantarien jaialdia Santutxun

Bilboko Santutxun, «El Carmelo» fraile etxean, euskal kantarien jaialdi bat ospatu zan, abenduaren 18an. Kantaldi horretan batu zan dirua, auzo haretan egiten dan alfabetatze kanpainaren premiak ordaintzeko izan zan. Goienaga mutikoak, «Elaiak» hirukoteak, «San Anton» orfeoia eta «Oskorri» taldeak jardun eben.

ANAITASUNA Bizkaia

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Jardin Txikerra 1, Bilbao-12.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

Debako arte lantegia...

dira: harri jasotzea, haizkora, dantzak, sokatira eta abar. Kirola hauk,* neurritz hartuz gero, oso egokiak dira haurrentzat.

—*Eta zer da, ideia berriak moldatzea?*

—Arte bizi honen bidez —fotografia, zinema, liburu, maketa, arkitektura, hirigintza* eta abar erabiliz—, imaginazioa indartu egiten da, praktiko bihurtzen da. Bestalde, lan guztiok taldeka nahiz pertsonalki egiten dira.

—*Zeintzuk dira zuen asmorik behinenak?**

—Ahal den herri guztietan honelako lantegiak sortaraztea.

—*Zer esan nahi duzu horrekin?*

—Lehen bai lehen Deban bertan ikastaro bat antolatzeko asmoa dugu. Ikastaro horretatik monitorea batzuk aterako dira, beste zenbait* herritan lan egiteko. Hasieran, lantegi berri hoiei geuk emango genieke babesa edo eta laguntza, harik eta bakarrik jarraitzeko indarra har lezaten arte.

—*Zer irakatsiko duzue ikastaro horretan?*

—Lehendabizi, Txillida anaiak, Larrea, Mendiburu, Sistiaga, Zumetak eta beste batzuek duten dokumentazioa bilduko dugu, honekin eta guk geuk egindako lanarekin prehistoriatik gaurdainoko dokumentazio argi bat edukitzeko. Hau egin eta gero, gure lanetan sartuko lirateke, ideia argi bat hartzeko.

—*Non erakutsi dituzue zeuen lanak?*

—Oraino oso leku gutitan: Barakaldon, Eibarren, eta orain Arrasaten. Erakusketa hauk* ere, saio bezala egin dira.

—*Zer lortu edo bete nahi duzue honekin?*

—Hutsune nabarmen bat bete nahi dugu batik* bat. Gaur egun, fundizio artistikoak, liburu moldaketak, inprimeriarako zurezko* grabatuak edo beste zerbait egiteko, hemendik kanpora joan bear izaten dugu, sarritan* Madrileraino. Euskal Herrian honelako lantegi batzuk irekiz gero, lan guztiok bertan egin litezke, industri mailan gainera. Lehen lantegia lruinean izanen da, bertan ematen duten laguntzagatik batez ere. Hango esperientzia ikusi eta gero, beste zenbait herritara joango gara.

—*Zerbait gehiago ANAITASUNAREN irakurleentzat?*

—Bai, gauza bat argi utzi nahi nuke, alegia,* arteak pedagogian duen garrantzia. Irudimena bizkor eraziz, ideiak sortzen irakasten du; eta, horretarako, euskal arte berezia erabiltzea komeni dela, ez dago zer esanik ere.

—*Horrela bada, jarrai bideari!*

JOSU TORRE

daukute, **dauskue**, digute
itzazu, **eizuz**
genieke, **geunskioe**
geion, **geuntsan**

lezaten, **leien**
litezke, **leitekez**
natzaio, **natxako**
zitzaion, **jakon**

Pérez Ollo, «Olentzaro» zer dan azaltzen

Pérez Ollo nafar kazetalaria* «Olentzaro»ri buruz mintzatu zan Altsatsuan, abenduaren 22an. Euskal mitologiako pertsonaia horren sorrera, joan-etorriak eta abar aipatu zituan.

Deba

Lotsagarria

Jakin dugunez, «Asociación para el Fomento de la Enseñanza y la Cultura» elkartearen gauza harrigarria gertatzen da. Alegia,* batzarretara erdiak inguru joaten direla. Elkarte honek duen eginkizuna eta diruaren aldetik laster izango duen erraztasuna ikusirik, tamalgarriaz* gainera, lotsagarria iruditzen zait jokaera hau.

Batzordekoa* denak, dei egiten zaionean, han izatea du bere lehenengo betebeharra; eta han azaldu behar ditu bere eritziak, bertan oiren arazoei buruz.

Beraz, ez joatea erabakitzen duenak, nortasun argiala adierazten du; eta bere ezpainenetan darabiltzan *aberria, erlijioa, politika, askatasuna* eta abarreko hitzak, ez lirateke haintzat hartu behar.

Alfabetatzea Itziarren

Bertako gazteek eraturik eta Debako «Asociación para el Fomento» elkartearen babesean, hazilean* hasiak dira, Itziarren, euskara batuzko ikastaldiak. Harrera ona izan dute jendearen artean, 25 bat lagun biltzen baitira zintzo zintzo. Ezagutzen ditugu buruzagiak; eta, ekin-tza laudagarri honetan, denok lagundu behar diegu. Pozik izan daitezke Itziartarrak, beren herrian holako gazte talde jatorra edukitzeaz.

IDIAKEZ

Linazasoro jaunaren mintzaldia Zumarragan

«La Navidad en Euskalerrria» gaiari buruz mintzatu zan Iñaki Linazasoro jauna Zumarragan, abenduaren 21ean. Gabon jaiek literaturan, esaeretan eta herriko ohituretan daben zerikusia aipatu eban.

Compruebe personalmente que
BYASS 96
es tan importante como dicen...



GONZALEZ BYASS
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

Manuel Estonba apaiza, «Garitaonaindia'tar Gotzon» sariaren irabazle

Manuel Estonba apaizak irabazi dau, «Eusko Arranoa» eleberriarekin.* «Garitaonaindia'tar Gotzon» nobela sariketa, AGUR aldizkariak antolatua. Lehenengo sari hau 25.000 pezetakoa izan da. Bigarren saria, 5.000 pezetakoa, Urruzola'tar Estanis («Uxola») jaunak irabazi dau, «Ezpalak» izeneko nobelarekin.

Laugarren saria Mikel Zarate apiz gazteak irabazi dau. Beronen idazlanari buruz, hauxe dino AGUR aldizkariak: «Oitura eleberria, oso gaurkoa. Eleberri hau ez zan sariketaren arauetan sartzen, baiña lan egiteko oñarri on bat izan leiteke». Zarate jaunak esan dauskunez, bere eleberriak ezin eiken sariketa horretan parterik hartu. bizpahiru H baiteroiazan,* eta sariketaren arauak ez baitzituen letra horrekin idatzitako lanik onartzen.

Kargu berriak Bilboko diosesian

Abenduko «Boletín Oficial del Obispado de Bilbao» aldizkariak dinoanez, kargu berri honeek eman izan dira Bilboko diosesian:

Ignacio María Lledó, Barakaldoko «Nuestra Señora de la Esperanza» parrokiari lan egiten dauan apaiz taldearen buru; José Pascual eta Martín Tirapu talde horretako lankide. Ventura García, José Ródenas eta Eugenio de Diego Sanz, Barakaldoko «San Ignacio de Loyola» parrokiako lankide. Xabier Aginako eta Fermín Astrain, Barakaldoko «Nuestra Señora del Carmen» parrokiako laguntzaile. Ignacio A. Arrastio, José Antonio Fernández eta Pedro Fuentes, San Salvador del Valle-ko «La Transfiguración del Señor» parrokiako arduradun. Rafael García, Lekeitioko serora* dominikanoen kapellau. Jose Migel Uriá, Lejonako San Juan Bautista elizako diakono.

Eskualdeak eta Estaduaren aurrerakuntza

Eskualdeen* desarrolloa dala eta, barbarik asko egin da azken urteotan. Gai honi buruz, 216 orrialdeko liburua bat publikatu berri dau José Luis Meilán, Santiago de Compostelako Unibertsidadean deretxo aministratiboa irakasten dauan katedratikoak. Honela dino bere liburuan: «Es evidente que los objetivos del desarrollo regional deben adaptarse al estadio actual del sistema económico y deben ser coherentes con las aspiraciones nacionales dominantes... El dilema básico para nuestro país no consiste en elegir entre política de desarrollo regional o de desarrollo nacional, sino en cómo combinar estos dos procesos separados, pero complementarios, en un marco unificador de ordenación del territorio». Meilán jaunaren liburuan, *eskualdea* ez da *lurralde* soil bat baizik. Baina eskualdeak bere kondaira, hizkuntza eta ohitura bereziak izaten ditu. Ipar Amerikaren kasua aipatzen dau, bere ideiak frogatzeko.* Baina, Ipar Amerikan, Estatu Federal batek gidatzen ditu eskualdeen joan-etorriak, azken honeek autonomia handi baten jabe direlarik. Meilán jaunak, jatorriz galegoa izan arren, Madrildarren zentralizazio ikusmoldeekin begiratzen ditu gai honeek.

Eskatzekotan: «España 71. El territorio, protagonista del desarrollo». José Luis Meilán. Ediciones del Consejo Superior de las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación. Madrid, 1971.

Soldadutzara

Urtarril* honetan uzten gaitue denboraldi baterako, Bizkai eta Gipuzkoa aldean euskal alfabetatzearen arduradun diren Patxi Elgezabal eta Jose Bernardo Jauregi, gazte jatorrek. Lehenengo hiru hilabeak behintzat Gasteizen iraganen* ditue, gero beste tokiren batera joateko. Bertan gelditzen diren ordezkari jatorrei esker, alfabetatze lanak lehen bezala jarraituko dira.



Euskal diskoak: **NAIKARI**

PROMES BAT

Itxas-ertzean, hegaltxu baten
zidarrezko zipristifak,
adiskidearen bizl-atalak
barnean gogoratuz.

Beretzat eguna gaua zan,
egunsentia huts-hutsa,
baila beti itxaropen bat,
gero barri ta gazte bat.

Bere arnas bakar-bakarra hori zan:
gero barri ta gazte bat.

Gaueko illargia, ur dirdiratsuetan
txipil-txapla ikusiaz,
promes bat egin neban:
Betl maitatuko dodaz
Itxasoa ta argia.

Beretzat eguna gaua zan,
egunsentia huts-hutsa,
baila beti itxaropen bat,
gero barri ta gazte bat.

Bere arnas bakar-bakarra hori zan:
gero barri ta gazte bat.

Eguzkia helduko da...

ESAIOTZU

Gaueko lilltasun garratzen,
kutunaren estl-amesak,
ezlizeko itxaropenak,
bihotza lailfotan.

Golzeko musu lilllagaz,
txorien txilo-txilo alaiekaz,
bihotza udaberritzen da,
izadia lrriparrezka.

Nire begietako pitxia,
zergaitik zuk gorrana egin?
Zu zaitut nere bizitzaren
kabi txukun bakar-bakarra.

Nork ikusi dau nire malte,
nork daki nun eskutatzen dan?
Esalozue nire aldetik,
Itotzen nagola,
mesedez erantzun daldela,
gai-zorian nagola.

HURREZKO SASOIA

Udako golz zorlontsuan,
lillen antzera,
gure maltasunaren zera
orduntxe sortu zan.
Zure eskerra nire eskumaz
Ikutuz berbetan,
poz-pozik bihotza saltoka,
oralndik umeak.

Maltasunaren ate goxo,
zelaltxo biguna,
besterik ez zan guretzako,
dan-dana argia.

Gora eta gora gaztedia,
Indar ta maltasuna,
bizlaren hurrezko sasoi,
alkarrez ta aurrera.

Gora eta gora gaztedia,
ames txorta bikalñia,
arazoek euren eskuetan,
orduan zorlone.

EUSKAL KULTURA MAHAI

Abenduaren 18 eta 19an ospatu zen Mondragoen «Euskal Disko eta Liburuaren Azoka». Berebiziko* une honetaz baliaturik, euskal kulturaren inguruan «mahai biribila» eratu zuten antolatzaileek. 150 bat entzule bildu ginen, udaletxeko* gela handi batean, Franco, Gernikako Arbola eta publiko arruntarentzat* ezezagun ziren jaun biren irudien gerizapean. Presidentzian, mahai luze batean, erreskadan,* «mahai biribileko» hizlariak: Jose Luis Lizundia moderatzaile, Andoni Lekuona giputz apaiza, Jose Maria Satrustegi nafar apaiza, Juan San Martin eibartar idazlea eta Ibon Sarasola donostiar literatoa.

Entzuleen artean, era guztietarikoak geunden: 20tik 30 urterartekoak, beharbada, gehientsuak, eta itxuraz behintzat, ikasleak edo enplegatuak.

Jose Luis Lizundia hasi zen hizlariari galderak egiten.

—(San Martini). **Zeintzuk gai aipatzen dituzte, gaur egun, euskal idazleek?**

—Astero, euskal liburu bat inguru ateratzen da. Aurten, ihaz* baino lau bat liburu gutiago agertuko dira. Sarrien* aipatzen diren gaiak, «orokorrak* direlako hoik* ditugu; gero, erlijioarekikoak.

—(Satrustegiri). **Nafarroako Diputazioak laguntza handia ematen ei* dio euskal kulturari. Zer dago horretaz?**

—Egia da, bai. Azken urteotan, Nafarroako Diputazioak aparteko laguntasuna ematen ari da, bereziki «Fontes Linguae Vasconum» eta «Cuadernos de Etnografía y Filología» agerkariak atera ahal izateko. Aldizkari bi hauetan, puntarengo jakintsuek idazten dute, euskal kulturari inon deneko kategoria emanaz. Idazleoi 100 pezeta ordaintzen zaizkie orrialde bakoitzeko. Bistan da, aldizkari bi hau* jakintsuentzako direla.

—(Entzule batek Satrustegiri). **Zergatik egiten dute hain guti euskaraz aldizkari bi hoietan?**

—Hori, idazleen esku dago. Artikulu guztiak, datozen hizkuntzan argitaratzen dira: frantsesez, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, eta abar.

—(Iboni). **Zer egoeratan aurkitzen da euskal literatura?**

—Literatura alderdi bitan banatuko nuke nik. Bata kreaizailea, eta bestea osterantzekoa.* Kreatze aldetik, orain dela urte bi jo genuen gailurra. Harrez gero, beharantz goaz. Egungo* denboretan, jendearen alfabetatzea eta euskararen batasuna dira idazlerik gehien arduratzen* nagusia.

—(Lekuonari). **Zer dioskuzu ahozko literaturari buruz?**

—Ahozko literaturaren edizio guti argitaratzen dira. Zeregin hau, Aita Zabala jesuitaren esku dago. Ba ditu hutsune batzuk* gaiaren aldetik; baina lan ona egiten ari da.

Une honetara heldutakoan, entzuleak bakarrik hasi ziren galdeak* egiten.

—(Iboni). **Zergatik izan da literatura kreaizaile horien beherakada hori? Ez duzu uste, aurtengo zenbait***

poesi liburuk, onak izan arren —hor dituzu «Hitz berdeak», «Izadiaren malurra», kasurako—, ez dutela izan, hala ere, harrera onik kritikaren aldetik? Beraz, ez ote da hobe esatea «kritikalariei beherakada», «literatura kreaizailearena» baino?

—Kritikalariei eskasia ba dagoela uste dut nik ere. Ez baita behar bezalako kritikarik egiten. Hori, aldizkarietara bete behar duten zeregin da. Baina, hala ere, kreaizaileek lanak beharantz doazela uste dut.

—(Iboni). **Zeintzuk gai dira, bada, gaur egun falta direnak, kreatze honen aldetik?**

—Orain, kasurako, ez da nobelarik egiten, edo, gutxienez, ez dira argitaratzen. Ez eta poesi libururik ere. Azurmendiren poesiak, orain agertu izan arren, zaharrak dira, aspaldi eginak. Publikorik eza dugu gaur egungo koskarik gogorrena, eta, honekin batera, hizkuntza batuaren falta. Bestalde, aldizkarietan ere ez dago giro onik. Haietan egiten diren kritikak arnegu hitzak edo zurikeriak izaten dira, erizpen* labur eta txar batzuk* ez direnean.

—(Iboni). **Ez duzu uste, idazleek ez dutela kreatze-ko prestutasunik, ez direla kreatze-ko kapaz?**

—(Ibonek). Prestutasunik ez edukitzea ez da kasualitate bat. Idazleek ere aparteko giro bat izan behar dute inguruan.

(San Martinek). Nik uste dut, gainera, idazleak herria baino aurrerago doazela, autoreak irakurlea baino aintzinago.* Nik ba dakit, zenbait poesi lan argitara eman gabe direla, nork publiko ez dutelako. Eta nork argitara ez badago, nork irakur ez dagoelako da. Kasurako, Martin Garin poetarenak.

(Lekuonak). Ene ustez, poesiaren gutitasunak literatura inpresarriarekin bat salatzen du.

(San Martinek). Poesiaren eskasia ez da bakarra. Nobelarekin ere berdina gertatzen da. Hor dago D. Peiloren nobelistaren eleberri* bat, nork argitara ez dutelarik.

—(Iboni). **Euskal Idazleen Elkarteak zergatik ez du indar gehiagorik?**

—Galdera horri beste norbaitek hobeto erantzuko lioke, beharbada. Euskal Idazleen Elkartea «batasun» arazoari begira sortu zen, ez preseski* literatura bera jorratzeko. Gainera, ez dut larregirik* sinesten holako elkarteetan, literatura kreaizailea sendotu nahi badugu, behintzat.

—(Iboni). **Zergatik ezin lezake LUR-ek eginkizun hori bete?**

—LUR-ek, datorkiona publikatzen du. Ezin dezakegu nahi duguna publiko, ez baitira inon, nahi genituzkeen kreaizaile hoik.* Editorialek ere, orain bi urte jo zuten gailurra. Gaur, gorabehera haundiak dituzte. Zergatik?

(San Martinek). Finantziario arazoak dago guzti horien oinarrian. Nahiz eta produkzioaren kurbatura gorantz joan.

(Ibonek). Suskritoaren arauera* dira gauzak. Edito-

BIRIBILEAN

rialak, euskara hutsean dihardutenak, suskritooren emaitzekin bizi dira.

—(Lekuonari). **Bertsolaritza agorturik ote dago?**

—Ez dut uste. Gainera, ba dira beste ahozko literatur molde batzuk ere, bildu beharrean direnak: ipuinak, esaerak, gai barregarriak... Bertsolaritzak berak ere aldatu egin behar du, hori bai. Industriadzeak erakarri duen bizimolde berria kontuan eduki behar du. Bestalde, bertsolari gazteak zaharrekin «txertatu»* behar dira. Lehen, hori sagardotegietan egiten zen. Orain?

(**Satrustegik**). Bertsolariak berentzat bakarrik aldizkari bat lortu* nahian dabilta. Dudan ibili izan dira, ala berri bat atera ala jadanik* direnetan aparteko leku bat eduki. Laster, zerbait agertuko omen* dute.

—**Diskoan salmentaren* ugaritzeak ez ote du literaturaren beharakada bizkortu eta haunditu? Disko berri bat erosten duenak, ez duke* libururik erosten.**

—(**San Martinek**). Diskoen letrak, gehienetan, negargarriak izaten dira.

(**Lekuonak**). Letrak onak direnean —Leteren kasuan—, literaturaren alde ateratzen dira.

—**Nola gaude antzerkiaren aldetik?**

—(**Ibonek**). Antzerki berririk guti dago. Itzulpen baina batzuk egiten dira. Talde guti daude, eta daudenek ezin dezakete gauza askorik egin. Horren arrazoia politikazkoa da. Biltzeko libertaterik ez dagoelarik, ezin daiteke antzerkiarentzat giro egokirik egon.

Une honetantxe jo zen, lehen aldiz, hondoa. Izan ere, edukazio politika baten kakoa dago euskal literaturaren barrenean.

ANJEL ZELAIETA

daude, dagoz
dezakegu, daikegu
dezakete, daikee
gaude, gagoz
genituzke, geunkez

geunden, gengozen
lezake, leike
lioike, leuskio
zaizkie, jakez

Bideak eskasak Bilbo aldean

Fernando Rodríguez Pérez, «Junta del Puerto y de la Ría de Bilbao» dalakoaren injinadore zuzendariak, abenduaren 27an, aditzera eman zituan kazetari eta berriemaielen aurrean, 1971. urtean Bilboko portuak izan dituan joan-etorriak eta gorabeherak. Segidan, telebisioak eta egunkariak haren deklarazioen berri zehatz eta luze eman eben.

Bilboko «La Gaceta del Norte» egunkarian, honela inoan Rafael Osa Etxaburu jaunak: «Laburkiro esateko, ez da urte zoragarria izan, baina bai dexente xamarra... Egin diren obra berriei eta laster bukatuko direnei esker, Cartagena eta Santa Cruz de Tenerifeko portuak baino haundiagoa izango da Bilbokoa... Baina, haren inguruan bide ganorezko* batzuk ez baditugu, eta infrastrukturazko beharrianak betetzen ez badira, gure etorkizuna beltz samarra izaten jarraituko da... Portuaren handitze eta gaurkotzearen alde egin diren lan eta ahalginek oihuka eskatzen ditue bide berri eta zabalak.»

«Oskorri Gaitz» teatro kantatua Larrabetzuan

«Oskorri Gaitz» izeneko teatro kantatua jokatu eben Bilboko «Oskorri» taldekoek Larrabetzuan, abenduaren 31n. Teatro kantatu honetako hitzak Gabriel Arestik egin ditu, eta irudiak Agustin Ibarrola pintatzaileak. Hauxe izan da, teatro berezi honekin egin daben lehenengo jardunaldia.

«T.U.» aldizkariaren mailukada guztiak untze berean

Mondragoeko «T. U.» aldizkariaren 131. aleak untze* berberaren gain jotzen ditu bere mailukada guztiak: gure industrien gaurkotze, indartze eta geureganatzean, alegia.* Han esaten danez, ahalegin guztiak egin behar ditugu, gaur eguneko industriarik aurreratuenak Euskal Herrian izan daiguzan. Hala ez izatearen arrazoiak bi ei* dira: Ez dogu geure esku, geure Herriaren alderako antolaketa burutsu bat egiterik; eta inbestigazioaren saillean egin ahal dogun apurra egiteko ere, ezer gutxi inbertitzen dabe gure industrien jabeek.

«T. U.» aldizkariak seinalatutako hutsuneak eta proposaturiko antolaketak zeharo arrazoikotzat jotzen ditugu. Beharbada, ez da ahanztu beharko, gizarte arazoak ezin daitekezela guztiz konpondu Euskal Herriaren etorkizunaren izenean.

Araba eta Gipuzkoaren etorkizuna «Actualidad Económica» aldizkariaren ustez

«Actualidad Económica» aldizkariaren 718. alean, Araba eta Gipuzkoako ekonomiaren egoera eta etorkizunari buruzko estudio bat agertzen da. Egileak, joan dan urtea probintzia biontzat nahiko epela izan dala azaldu ondoren, etorkizunari begira zer bide hartu leiteken aipatzen dau.

Jose Felix Azurmendi kazetari berria

Jose Felix Azurmendik bukatu berriak ditu kazetari* ikasketak. Markinan jaio zan, orain dala 30 urte. Hamabi urtegar Derioko seminariora sartu zan, apaiz izateko asmoz. Lau urtegarrenean, utzi egin eutson apaizgaitzari, eta Gernikara aldatu zan bere familiarekin. Politikazko arazoakatik, ihesi joan zan Hego Amerikara. Han, Colombian hain zuzen ere, kazetalaritza bukatu berri dau. «Licenciatura» dalakoa lortzeko idazlanean, «Burgosko Epaiketa» famatua hartu dau gaitzat.

Azurmendi jauna ezkondu dago, eta seme-alaba biren aita da.

«Goizaldi» dantza taldearen ekinaldia

Donostiako «Goizaldi» dantza taldeak, hiri* haretako «Teatro Principal»ean jardun izan eban, abenduaren 26an. Ignacio de Iztueta zanaren «Gipuzkoako Dantzak» liburuan agertzen direnak dantzatu zituen. Aiako trikitilariak ere parte hartu eben. Amaitzerakoan, «Sorgin Dantza» jokatu zan. Azken dantza hau ez dator lztuetaren liburuan; Alberto Orotegi jaunak 1968. urtean Oriako auzunean ikusi eta ikasia da.

Euskal teatro zaharrak San Antongo elizan

Euskal mundu guztiak ongi dakien bezala, Ibaizabal ondoko San Antongo eliza zaharrak halako tradizio luze bat du euskal gaietan. Euskal literaturaren iturburuetan beretan aurkituko dugu, harro eta ozen,* haren izena. Mikoleta zaharra, euskaldun eskritoreetatik zaharrenetako hura,* gaur egunean Don Klaudio Gallastegi bezala, eliza horretan egon zen parroko. Beraz, ez da gauza berria, Bilbao zaharrean euskara landurik ikustea. Lastima da, diferentzia xipi bat egon dela denbora zaharretatik gaurkoetara, ordukoetan eliza herriaren zerbitzuan jarzen zen bezala, oraingoetan herria elizaren zerbitzuan jarri nahi izan delako. Huts handi honetaz konturaturik, euskal teatroak honenbeste oztopo aurkitzen duen tenoreon,* San Antongo parroko handiak (handi gorputzez, bozez eta, nola duda, arimaz) bere parrokiako paret zahar eta santuak eskaindu nahi ukan dizkio gure kultura eta dramaturgiaren lantzeari; eta, desinteres honen fruitu, joan den Eguberri* egunaren iluntzean, gure komediarik zaharrena estrainaldiz ikusteko egokiera eta zorriona eduki dugu.

Eta ba dirudi, eta egia hutsa irudi gainera, teatro klase batzuetarako eszenarik egokiena eliza dela, batez ere eliza zaharrak, harri landuzko elizak, burdineria mailuztatuzko elizak. Horregatik, halako leku aproposik duen parroko jaun guztiei, Bazterretxe eta gaurko gure Barrutia eta euskal batu batetar itzulitako zenbait* zuberotar pastoral erlijioso errepresenta erazitzeko zerbitzua erregutuko nieke. Don Klaudiok egindako esperientziak halako erantzuna merezi du.

Barrutia, zorionez, paper hautsezatuetako agonia-tik irten* da. Lehenez, Abeletzek «euskaratu» zuen [ezen* Barrutiak erabili zuen hizkuntzak, eneak bezala, euskararen izenik ez baitu merezi], eta bere pezetatxoak

irabazi zituen. Gero, nik esplikatu nituen Barrutiaren balore literarioak, eta palo ederrak errebitu nituen atzekaldean. Orain, Arratiko Arantzazutar neska-mutilen bertutearen poderioz, komedia zahar honek bere teatrotasun bete lortu* du.

Argi eta garbi ikusten zen, hala ere, esperientzia handiren jabe ez zirela. Hala ere, antzezlariek ederki jokatuzituzten beren ofizioak. Oztopo handi bi garaitu behar ukan* zituzten: dekorazio falta eta textoaren gaiztasuna, batez ere azken kasu honetan, kantatuak izateko bertsoak kantatu gabe primeran errebitatu zituztelako. Beste zenbait bertsori jarritako musika guztiz egoki egon zen, nahiz eta teknika italiar modernoegi batetan moldaturik egon.

Publikoaren artean, jende progresista gazterik ez genuen sobera* ikusi. Jende debot gehiegi gure gustorako. Estudianterik eta intelektualik ez genuen ikusi. Zer galdu zuten ez dakite.

Beste alde batetik, euskaltzale kontserbadore ia guztiak ikusi genituen. Ez dugu uste, sobera gusto hartu zutenik, Barrutiaren erdarakadak entzutean. Are* gutiago, Barrutiaren h-ak entzutean.

Hitz batetan: Euskal kulturarako jornada pobre baina prometagarri bat.

GABRIEL ARESTI

Zuzendaritzaren oharra. Bizkaitar sinestedun aurreazale eta kontzientziatu batzuek esan daukutenek, Arratiko antzerki talde honek eman duen Barrutiaren teatro hori, nahiz eta beronen literatur baloreak onartuak izan, ez da, inolaz ere, euskal kristauek gaur egun eskatzen duten teatro modu bat.

daukute, **dauskue**, digute
dizkio, **dautsoz**

nieke, **neuskioe**


Opari txekea



Banco de Bilbao

**irrifar behartuak,
benetako esker
irrifar bihurtzeko**

**Nahiz txikia izan, eskein
zazu zure oparia**



OPARI TXEKE honez zorion itzazu egokiro

Ez al da aipagarria, eguberri-opari egokia aukeratzea? Gure ÷ulegoetan eros dezakezu nahi besteko OPARI TXEKEA. Eta hartzaileak, hau kobratzerakoan berak nahi duena eros dezake, Opari agiri hura bere esku geldituko da, noski.



Bangla Desheko herbestera tuak

Bangla Desh, gaurdaino Pakistanen menpean egon den herri bat dugu. Bangla Desheko herriak, «Awami» elkartearen eskabideak onarturik, gudaketa baten bitartez defenditu behar izan du, eskabide haiek zeramaten errealitatea. Elekzioetan, parlamentuko bi aulki izan ezik, beste guztiak irabazi zituzten autodeterminazioaren alde zeudenek. Yahya Khan-ek eta haren jarraitzaileek, Bangla Desheko herriaren pentsaerari kasurik egin gabe, beren asmoak bakarrik haintzat hartzen zituzten. Jokaera honen ondorioa, Mendebalde* eta Ekialdeko* Pakistanen artean sortu zen istilua dugu.

Mendebaldeko Pakistanek, martxoaren 25ean, ikeragarritzko odolketak baten ondoren, bukaera eman zion Bangla Deshen askatasun egunari. Alde batetik milaka hilak, eta bestetik hamar milioi herbestera tuak, oraintsuko gudaketa sorterazi dutenak. Zapalketa hura, gertatu zen baino askoz haundiagoa izan zitekeen. Baina ez zen komeni haundiegia izatea, lehendik ere lurralde hartan hainbat giza problema zeudelako. Bangla Desh bezalako herri baten hondamendiak izugarritzko situazio latzak sorteraz zitzakeen, batez ere kapitalismoa hain ahul* aurkitzen den Asiako lurralde haietan.

Sortu ziren istilu guztien artean, herbestera tuen arazoa batez ere azaldu da egunkarietan. Egia esan, herbestera tuak izan dira funtsean,* India eta Pakistanen artean azken gudaketa hau berpiztu dutenak. Baina arazoak ez dira, egunkarietan agertzen direnak bakarrik.

Nazio infradesarroitatu bat izanik, Indiak ezin zitzakeen manteni, lanik gabe eta goserik zeuden hamar milioi herbestera tuok. Nazio haietan, Indian eta Pakistanen, ekonomiaren estabilitatea oso kaxkarra da; baina, hala ere, herri barnean dauden kontradizioek eta aintzina erlijio klasismoak etsiturik* eduki dute jendea orain arte.

Bangla Desheko herbestera tuei bide bat bakarrik gelditzen zitzaie, egoera larri hartatik ateratzeko: burruka. Azken gudaketak ez du lehengoaren antzik ere izan. «Awami» elkartearen xedeak* ez dituzte denek onartzen. Egia esan, Mujibar Rahman-en izen hutsak dardaraz jartzen du herriaren bihotza. Baina «Mukti Bahini» askatasun mugimendukoek gehiago nahi dute. Haien helburuak,* «Awami» elkartekoenak baino askoz ere radikalagoak dira. Haiek diotenez, Bangla Desheko herriak, zeinen eskuetan eror,* halako gobernua izango du. Adibidez, «Mukti Bahini» mugimendukoek banatu egiten dituzte lurak herritarren artean; «Awami» elkartekoen, oster,* ez dute horrelakorik egiten.

Indiari interesgarri zaio, lehen bai lehen herbestera tuen arazoa konpontzea, etxekalte bihurtzen hasi zaio eta. Horregatik, Indira Gandhik libre utzi nahi du Bangla Desh ahalik eta lasterren; baina boterea «Awami» elkartearen eskuetan jarri gura* du, honela errepublika berria, salerosketa kontuan, Indiaren morroi leiala izan dadin. Orain arte, Indiak harmak eman dizkie «Mukti Bahini»ko iraultzaileei*; baina, seguru asko, desarmatuak eta hondatuak izango dira, askatasun osoa datorrenean.

Nazio boteretsuak, hamar milioi herbestera tuak atxakiatzat harturik, hor ari dira zerbait egin nahian. Dirudienek, beren asmo inperialistak bakarrik defenditzen dituzte, hainbeste eta hainbeste pertsona behartsu jokoan direlarik. Hori dela eta, ez da erraza izango, iraultza garaile ateratzea.

OKERRA


daude, dagoz
dizkie, dautsez
zaio, iako
zeramaten, eroien, eramaten
zuten

zeuden, egozen
zion, eutson
zitekeen, eiteken
zitzaie, jaken
zitzaieken, eikezan

guztietariko
elektrodomestikak
sukaldearen
lagungarri



COCINAS



FRIGORIFICOS



LAVADORAS SUPERAUTOMATICAS



Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz

1971-n egindako produkzio haundiari eskerrak ditugu holako saineurriak

IBON SARASOLAREKIN

Joan den uda honetan Ibon Sarasolak argitaratu duen «Euskal Literaturaren Historia» liburuak hizpide* ugari sorterazi du. Eritzi eta kritika franko izan du. Tenore* honetan, burua hotz eta estraineko zarrasta ahazturik, berarengana jo dut galdezka. Donostian gara, eta gaur bertan jakina du, Euskaltzaindiaren saria bere liburuak jaso duela. Beti legez* aurkitu dut, zimel eta apal. Arras* eta prestuki erantzuten die ene galderei.

—Ez ote duk, gero, liburu hau sobera* presaka egin?

—Liburu hau gertatzen, bi urte pasa ditiat. Argitara eman dudun redakzio hau, bigarrena duk. Lehenik beste bat egin nian; baina, hura* azertu ondoren, bigarren hau taxutu diat. «Euskal Literaturaren Historia» idatzi aurretik, geure literatura guztia irakurri diat. Ez, ez duk presaka eginikako liburu.

—Zer deritzak, hire liburuari egin zaion kritika ugariari?

—Nik, edo laudorio merkeak edo arnegu alferrak espero nitian; baina oker nienbilan. Kritika konstruktiboak egin direla uste diat. Liburuaren funtsari hauteman ziaio. Dato berri asko agertu duk. Kritikak, leialak eta serioak izan dituk.

—Azurmendiren kritika, oso aipagarritzat jotzen diat. Zabal eta luzaro iharduki dik garbizalekeriaren inguru. Purismoa dela eta, hire zenbait* eritzi hauzitan jarri dik.

—Bere kritikan, Azurmendik zenbait purismo desberdin nahasten ditik. Purismoak, Europako bujesia eta razional mugimenduaren frutu bezala ikuspegitzen ditik. Euskal garbizalekeriaren kasua ere, honela espilkatzen dik. Baina, ene ustez, euskal garbizalekeriak berezitasun inportanteak ditik: batetik, euskara ez duk hizkuntza indoeuropeo bat; bestetik, eta kulturalki hartuz, ez duk oso zabala. Hizkuntza ama batetik ez ditik euskarak bere hitz berriak hartzen, bere kultural ingurutikan baizik. Frantses, italiano eta beste hizkuntza erromanikoez ba diate garbizalekeri kontu honetan muga jakin bat: latina. Euskarak ez, ordea;* euskarak ez dik muga jakinik. Euskal purismoa erdaraz egin duk. Euskaldunek, erdaraz idatziz esan diate, zein hitz «garbi» erabili behar ziren.

—Baina euskal burjesiak zerikusirik izan ote du, garbizalekeriari dagokionez?

—Euskal burjesia ezin diaitekek, garbizalekeriari dagokionez, Europako beste burjesiekin konpara: euskal burjesiak ez baitu tradizio hain sakon eta zabalik. Adibidez, Lizardi burjesa zuan, sozial mailari zegokionez (fabrikako jerente); baina pentsamoldez eta jatorriz nekazaria zuan. Beraz, ezin diaitekek esan, pentsamoldez eta ideologiaz Lizardi burjesa zenik. Errazago burjesten duk nor bere bizimoldean, bere pentsamoldean baino; honetarako, denbora gehiago behar duk. Burjes-nekazari kontrazio honetatik ikuspegi diaitekek euskal garbizalekeriaren arazo berezia.

—Besteen purismoa honetan dagoela esaten duk: hizkuntzak «ama» bat ba dik, eta ama honengana hurbiltzeak* diakarrek garbizalekeria.

—Ez diat nik hori esaten, baizik eta purismo kontuan hizkuntza hoiek muga jakin bat ba dutela. Adibidez, frantsesak garbi litzakek bere hizkeran dituen zenbait hitz arrotz, hitz jatorrak sorteraz litzakek; baina, horretarako, latinera jo beharko dik.

—Garbizalekeriaren arrazoinak eta kausak linguistika alorrekoak* ote dira soil soilik?

—Garbizalekeria guztiak egoera berdintsuetan finkatzen dituk. Sentimendu nazionalaren sortzearekin batera diatozek. Frantziar, Alemaniar, Kataluniar eta halaber* hemen ere, sentimendu honen sortzeak zerikusi handia dik garbizalekeri kontuan. Nik uste diat, azken finean, arrazoin politiko eta sozialek eragiten dutela garbizalekeriaren sena. Garbizalekeria egiteko tenorean* sortzen dituk arazo teknikoak. Garbizalekeriaren moduan sortzen dituk arazo linguistikoak. Arazo linguistikoak bereziki planteatzen dituk hizkuntza bakoitzean.

—Klerikalismoa dela eta, susmoak hartuak ditiat. Ez ote duk klerikalismoa eskema orokor* bat bezala erabiltzen? Ez dea* hori tesikeria bat?

—Nik ezetz uste diat. Bestela, ez nikan erabiliko. Gainera, liburuak hari bat behar zian. Baina, dena dela, ez diat funtzionaltasun honen bizkarretik objetibaterik saldu; zeren* eta klerikalismoaren arazoa objetiboki aztertzen baitut. Ahalik eta objetiboen azaltzen saiatu nauk.

—Historia bat idazteak arrisku bat dik, eta hauxe duk: buruan den tesi bat frogatzeko* edo, honen arauerak* kondaira ikuspegitzea.

—Nire kasuan, lan egin arau* iritxi* nauk tesira.

—Baina egin ote daiteke, gero, historia neutro bat?

—Historian ere zientifikoki lan egin diaitekek. Baldin datoei hitz egiten uzten bazaie, historia objetibo bat egin diaitekek. Errealitateari bere esangura esaten utziz gero, zuzena izanen duk errealitate horren azterketa. Arriskua diagok: dato guztiak gogoan ez edukitzea. Edo zein zientzian aurkitzen diagu arrisku hori, baina giza jakintzetan batik* bat.

—Zer asmo duk aurrerantzerako?

—Orain, gerraz gerozko poesiaren antologia bat prestatzen ari nauk. Textoen analisiaren bidez, euskal poesiaren egiturara* ailegatu nahi diat; influentzien jokoak nolatan egituratzen den ikusi, eta abar. Nobelari buruz ere, hasia nauk lanean: Bai eta euskal literatura zaharraren antologia bat ere prestatzeko asmoa diat. Antologia honek hiztegi bat, textoen analisisa eta literatur mugidaren azterketa soil bat ere izanen litzakek.

—Heure liburuaren azken partean zenbait idazleren

Marxen izkribuak euskaraz

MARX, Karl:

Lan alokatua eta Kapitala - Alokairua, prezioa eta irabazia.

LUR editoriala. Xabier Kintanak itzuliak.

LUR editorialak beste liburu interesgarri bat eman dauku: Marxen bi idazlan: **Lan alokatua eta kapitala** eta **Alokairua, prezioa eta irabazia**.

Pozgarria da Marxen lanak euskaraz irakurri ahal izatea. Irakurle askok ez du astirik izango. **Kapitala** osoa irakurtzeko; horretarako, pazientzia handia eta ekonomiazko jakinduria behar baitira.

Bi lan hauetan, berriz, Marxek, erraz eta guztiek

Ibon Sarasolarekin...

izenak eta lanak aipatzen dituk. Ba duk bat baino gehiago zapuztu dena, bere izena agertzen ez delako.

—Begira! Batetik, motza* izan behar zian izen zerranda honek; eta bestetik, zenbait lanek ez diate tokiarik merezi euskal literaturan. Gauza bat duk euskaltzale izatea, eta beste bat idazle aipagarri izatea. Bizpahiru artikulua egin dituen edonor, ez duk hargatik literaturaren historiara pasatuko. Lehen, edozein zukean euskal literaturaren historian toki bat izateko gai; baina, zorionez, egun,* aukera bat egiteko baldintza ba diagu. Honek zera esan nahi dik: gure literatura ugaritzen eta hobeagotzen ari dela.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

HIKETAZKO FORMAK

diagok, dago
diaqu, dugu
diaitekek, daiteke
diakarrek, dakar
diat, dut
diate, dute
diatozek, datoz
dik, du
ditiat, ditut
ditik, ditu
dituk, dira
duk, da
litzizek, lituzke, leukez
litzakek, litzake, leikez

nauk, naiz
nian, nuen
nienbilan, nenbilan
nikean, nukeen, neuken
nitian, nituen
ziaiok, zaiok, jako
zian, zuen
zuan, zen
zukean, zatekeen

OSTERANTZEKO FORMAK

die, dautse
zaie, jake
zaio, jako

ulertzeko moduan, bere ekonomi teoriako pundurik garrantzitsuenak azaltzen dauzkigu: plusbalioa, prezioen determinazioa, alokairuaren* gorabeherak, eta abar.

Marxen ekonomi alorretan* sartzeko, bide laua* eta egokia izango du irakurleak bi idazlan hauetan.

Euskal itzulpena Xabier Kintanak egina da. Jatorrizko textua hartu ondoren, astiro euskal itzulpena azertu dut, biak alderatuz.*

Itzulpen oso bikaina iruditzen zait. Alde batetik, euskara joria* eta arina da. Itzultzaileak ongi dioen bezala, ez da gauza erraza, zientziako kontzeptuak eta ideiak euskaraz ematea. Azken denboran, aurrerapen handiak egin ditugu, noski,* baina, hala ere, oraindik ere hastapenetan* gaude.

Dena dela, irakurleak ikusiko du, Kintana gauza izan dela, Marxen idazlanak euskaraz zintzo emateko. Ongi jokatu duela uste dut, Axularren eritzia baino Leizarragarena kontuan izan duelako: hots,* ahalik eta zintzoen egilearen esana ematea.

Marxen idazlanak ez dira olerkia* edo nobela. Zientziako itzulpenetan —gai hauetan sarturik gabiltzanok garbi ikusten dugu egunero— idazlearen esanak **borobiltzen eta hobeagotzen** iharduteak kalte eta oker galantak ekartzen ditu. Orduan inoiz baino egiazkoago: «Tra-duttore, traditore».

Jatorrizko textua ikusi ondoren, esan ez bakarrik, Leizarragaren kontseilua bete duela ere aitortu behar du irakurleak.

Garrantzi gabeko oker guti batzuk irristatu* dira. Horrela, 21. orrialdean «harreman politikoak» irakurtzen dugun tokian, alemanez «ökonomische Verhältnisse» agertzen da.

Liburu bikaina eskaini dauku LUR editorialak. Eta itxaropen dugu, Marxen beste liburuak ere euskaraz irakurtzeko aukera* eta atsegina izango dugula. Ba da egin beharra oraindikan!

GOTZON GARATE

dauku, dausku, diau
dauzkigu, dauskuz, dizkigu

gaude, gagoz
zait, jat

Transportes "ANAITASUNA"

- Transporte kooperatiba euskalduna, gaurko egunak eskatzen duen modukoa.
- Karga osoak nahiz paketeak, peninsula guztirako.
- Euskal Herriko komertzio eta industriaren zerbitzuan.

TRANSPORTE ARAZOAN LAN EGITEN DUTEN KAMIOIDUNEI:

- Egin ditzagun enpresa haundiagoak, geure interesak zaintzeko eta irabaziak gehitzeko.
- Bakarrik ezin duguna, elkartuta egingo dugu.
- Gure gaitz guztien sustraia, nor bere aldetik ibiltzea da.
- Elkartu ditzagun geure indarrak.
- Sartu zaitez «ANAITASUNA» transporte elkargoan.

Hona hemen zuzenbideak

PAMPLONA
Pico de Ori, 2
Tel. 23 92 40

SAN SEBASTIAN
General Mola, 45
Tel. 42 81 77

BILBAO
Gordóniz, 93
Tel. 32 78 85

VITORIA
Concejo, 5
Tel. 21 14 35

BEASAIN
Avda. Navarra, 47
Tel. 89 18 37

ALSASUA
Mayor, 8
Tel. 56 01 76

MADRID
Paseo de la Chopera, 29
Tel. 228 45 46

TOLOSA
Carr. Leaburu, s/n
Tel. 66 10 24

Iparraldeko berriak

«Nork hil du Oihanalde» antzerkia Itsasun

«Nork hil du Oihanalde», Larzabal apaizaren antzerkia eman izan dabe Lapurdiko Itsasun, Eguberri* egunean.

Euskal kanta jaialdia Baigorriin

Euskal kantaldi bat eman eben, Nafarroa Behereko Baigorriin, Etxamendi, Larralde, Borda, Sarasola, Carrère, Ospital, Etxegoin eta Martikorena kantariak, abenduaren 26an.

HERRIA komunisten kontra

Baionako HERRIA astekariaren 1.115. alean, hau dino «Hego-alde» saila daroanak: «Gu (euskaldunok), geure aldetik, hala eskuintiar nola ezkertiar diktaduraren kontra gira. Denak tupin* berean ezartzen ditugu». Gero, honetara amaitzen dau: «Komunistak bentzuzeko molderik hoberena, ez da haik belztea,* baina obraz erakustea, guk eskaintzen dugun bidea, haiena baino hobea dela».

Ipar euskaldunak eta turismoa

Guy Petit, Biarritzeko alkate jaunak luzaro hitz egin berri dau frantses telebisiotan, 1972. urtean Euskal Herriko turismoari laguntza gehiago emateko eskatuz. Egia esan, euskaldun aberats banaka batzuk bakarrik dagoz turismoaren alde; jende xehea, oster,* industrializatearen alde.

Baionako «Gran Hôtel» hitxi egin dabe

«Grand Hôtel, Baionako Thiers kalean dagoena, hitxi egin dabe haren jabeek, irabazirik baino galtzerik gehiago ekarrelako. 80 gela ditu, restaurante eta kafetegi batez gainera. Hain ospetsua zàn ostatu honen hixteak aditzera ematen dau, Iparraldeko turismoa gora baino gehiago beherantz doala.

Euskal Herriko bideak oraindik ere gaizki

«Bilbotik Behobirako autobidea egiten danean, eta,

«III Plan de Desarrollo» dalakoaren barruan, Nafarroa aldeko autobideak eta Maltzagatik Gasteizera eta Bilbotik Santander aldera eta Mirandara doazenak egiten direnean, bideberri onak izango ditugu. Baina, hala ere, gure eskualdeko* infrastruktura nahiko eskasa izango da» (Bilboko *La Gaceta del Norte*. 71-XII-26).

Liburu eta diskoen azoka Gasteizen

Euskal liburu eta diskoen azoka ospatu izan da Gasteizen, «Excursionista Manuel Iradier» elkartearen ardurapean, abenduaren 24, 25 eta 26an.

«Egia» kirol taldeko zuzendariaren bihotz-beratasuna

Abenduaren 26an, Donostiako «Egia» eta Madrileko «Atlético de Madrid» ekipoek jokatu eben, erdaraz «balón-mano» deritxon jokoa. Donostiarrak garaile atera zirelarik, telebisioko gizonek elkarrizketa bat izan eben ekipoaren zuzendariarekin. Gabonak zirela eta, ea ezer esan nahi eban itaundu* eutsoenean, oso osoan erantzun eban: «Espainiako buruzagi nagusiari eskatzen dautsat, Gabon jaietan gagozenez gero, espetxeraturiko politikolari guztientzat barkamena eman daiala». Hori da bihotz-bera izatea!

«Unai» hirukotea, saritua

Azkoitiko «Unai» hirukoteak irabazi eban Iruinean ospaturiko «Gabon kanta lehiaketa». Bigarren saria, Xabier Madina gaztearentzat izan zan.

Eibarko «Orbea» enpresarentzat diru laguntza

Eibarko «Orbea» enpresak 23.875.000 pezetako laguntza jaso* dau «Fondo Nacional de Protección al Trabajo» dalakotik. «Orbea» etxeak lantoki berriak eraikiko ei* ditu, erosi berri dituan lurralde batzuetan, eta, diru laguntza horri esker, lantoki berriok tresna modernoekin hornituko.

Arraras jaunaren berbaldia Iruinean

Arraras jaun folklorezaleak berbaldi bi eman berri ditu Iruineko Aurrezki* Kutxaren saloian. «El folklore en Navarra» eta «El folklore en la Ribera Navarra» gaien inguruan jardun eban. Filmina batzuk erakutsi zituan, eta elkarrizketa batekin amaitu ziren mintzaldi biok.



DEPURACION DE AGUAS

S. A.

urak moldatzen berebizikoak

edangarritu - industrierako - zikinduak - piszinak

Tel. 32 37 00-31 00 10-32 37 01

Gordoniz 44. BILBAO.

Kontsumoko gizartea

1929. urteaz geroztik munduak eman duen aldaketa, ikaragarria izan da. Urte honetan hasi zèn krisiak, erabat* alda erazi zituen beren teorietan garai hartako ekonomistak. Berehala onartu zituzten enpresetako nagusiek forma berriak; eta Estaduetako agintariak izan ziren batik* bat, kontrol berri baten premia ikusi zutenak, beste horrelako zerbait gerta ez zedin.

Ordurarte uste zen, zenbat eta gehiago produzitu enpresek, hainbat eta errazago kontsumituko zuela gizarteak. Eta horrela, azkenean, ezinbesteko egoera batetara iritxi* zen: izugarritzko «stock»ak egin ziren, eta enpresak nora jo ez zekitela gelditu ziren. Horregatik izan da, orduz geroko Estaduen parte hartze bete betekoa barreneko ekonomi gaietan. Eta 1939.eko gerra mundiala ere 1929.eko krisi ekonomikoari ezartzen zaio.

Esan genezake ere, garai horretatik inoiz baino nabarmen eta indartsuago hasten dela kontsumoko gizartea, hots,* kontrol eta manipulaziozko gizartea.

Kontsumoko gizarte hau oso zabala da, eta era guztietako giza ekintzak kontrolatzen ditu: patata nahiz xaboi marka batetatik has eta, toki batzuetan, Estaduetako buruzagiak hautatzeraino.

Manipulazio hau gizarteko maila guztietan aurkitzen da. Sistema honek gauza berri bat eros erazteko dauden metodoak maneiatzen ditu, eta gero, beste maila batean, gizarte eta politikako ekintzak zuzentzen ditu.

Sistema honek ez dauku uzten, geure astiunetaz* behar den moduan baliatzen, geure burua hezi* eta diziplinatzeko, edo eta komeni zaizkigun ikasketak egiteko. Horren orde, lasaikeriazko bere produktu traketsak eskaintzen dauzkigu, gure bizitzaren zentzu bakarra hori edo nonnahi sistema horrek agertzen duen hura* egitea edo hartzea balitz bezala.

Horregatik, sistema honen lehen zeregina ez da, gauza bat edo beste kontsumi eraztea edo gauza hoi ontasun eta berezitasunak agertzea, baizik eta gure pentsamolde osoa aldatzea eta hark nahi duen erara joka eraztea.

Edozein produktu berri, bai xaboi, tabako eta abar, merkatura ateratzerakoan, gizon prestu eta bizkor bat nabarmentzen zaiku gauza hori erosten, bere prestutasuna eta zoriona zigarro marka hori erretzen duelako dela adieraziz.

Jendeari sartu nahi dioten produktu hori, gehiengotan, emakume gazte baten bidez eta leku eder batean agertuko daukute; eta gizonezkoa emakume artean azalduko da eta ongi hartua izenen da, zigarro hori erre edo paitar hori edaten duelako.

Eta, kontsumo hutsetik aparte, gizarte mailan, ikus ditzagun kontsumo honen adarrak.

«Oposizioa», hizpide* asko ematen duen gaia da; baina, gaur egun, oposizioa ez da lehen bezala ulertzen. Gaur, zuzendariek finkatutako erregeletan sartzen da oposizioa. Baina gauza batean parte hartu gabe gelditzea ez da oposizioa, zerbait gogorragoa baizik.

«Askatasuna», goitik behera ipinitako norma batzuetan sartzen den zerbait egiteko eskubidea da; baina, ez, beste batzuek eta gehienek pentsatu, senti-

tu edo nahi dutenaren kontra zerbait eskatzea edo egitea. Horrek beste izen bat du.

Eta oraindik ere gehiago.

XIX. mendean* 12 edo 14 orduko lanak gizona erabat* itotzen zuen bezala, orain sistema honek kontsumoko amarrukerien bidez lotu egiten gaitu osoki.

Langileak pozik edukitzeko ere, gaur egun psikologi tratamenduak daude, enpresa haundietan batik* bat, neokapitalismoaren teknikak onar ditzaten eta, jakina, egiturak* gorai.*

Gizartearen kontrolatzaileok astiuneak ere zuzendu nahi dituzte. Lan hori ideologi mailakoa da. Honek beronek zapalketa gogorra adierazten du. Lantokietan ezezik, egun guztian ere zer egin behar dugun kontrolatu nahi daukute.

Eta hau ez da gure herrietakoa bakarrik. Kontsumoko gizarte hau oraindik ere indartsuago nabaritzen* da, gaur demokrata eta sozialista izena duten Estatu askotan. Gizarte hoietan, bizilagun bakoitzaren errenta altxatzeko, ainitz* kontsumitzea behar dutelarik, kontsumoko ereduetan* osorik sartuak daude.

Hau honela ikusita, adimena lurrera erortzen* da. Dударik gabe, gauza zaila da, bere askatasuna lortzeko* duen premia gizonari agertzea eta askatsun horretarako heziketa* on bat ematea. Hau oso luze eta gogorra da.

Baina, gizarteko beste maila guztien gainetik, langileriarri dagokio gizarte molde hau aldatzea, zeren* beste denak kapitalari lotuak baitaude eta kontsumoko gizarte hori behar baitute, irabazten irauteko.

J. ARRIZABALAGA

daude, **dagoz**
dauku, **dausku**, digu
daukute, **dauskue**, digute
dauzkigu, **dauskuz**, dizkigu
ditzaqun, **daiguzan**
ditzaten, **daiezan**
genezake, **geinke**
zaiku, **jaku**, zaigu
zaio, **jako**
zaizkigu, **jakuz**

BI-LINGUAL SECRETARY

Needed with fluent English and Spanish, shorthand and typing in both languages and experience, for contract of a year and a half with possibility for extension. Write curriculum vitae in both languages, indicating salary, to ANAITASUNA: Jardín Txikerra 1-1.º, Bilbao-12. Information will be treated confidentially.

Gaurko gure egoera ekonomikoari buruz

Beste egunean esaten genuen bezala, Euskal Herrian benetako garrantzia duen arazoetako bat, gure egoera ekonomikoa da. Problema hau gero eta sarriago agertzen da aldizkari eta hitzaldietan (aldizkari eta hitzaldi bazuetan, jakina).

Arazo honetaz lan oso interesgarri batzuk argitaratu badira ere, esan beharrean gaude, oraindik azterketaren hasieran gaudela. Ba dirudi, hala ere, jendea ohartzen ari dela problema honetaz, eta, beraz, etorkizunak emanen dauzkigula lan hoi en ekoizpenak.*

Lantxo honetan, eritzi batzuk eman nahi nituzke problema honi buruz. Uste baitut (edo sinestu nahi baitut), sinpleak izan arren, irakurlea zerbait pentsatzera bultzatuko dutela. Beraz, ez dut eman nahi lantxo honetan teoria oso bat. Nire asmoa hori baino mila bider apalagoa da.

Gure problema ekonomikoa zertan datzan esateko, sistema aztertu behar dugu. Sistema horrek sortarazi baititu, gure ekonomiak gaur egun jasaten* dituen oztopoak.

Hasi behar dugu, beraz, nahi eta nahi ez, indar produktiboak aztertzen. Gaur irrazionalki mugitzen ari diren indar produktiboak aztertu behar ditugu, eta desarroiloaren oztopoak salatu. Egoera bakoitzak oztopo bereziak ditu. Beraz, ez dugu azterketa ximple batean erori* behar. Gure azterketak sakona behar du izan.

Azterketak emanen dauku gure errealitatearen egoera: alde batetik, indar produktiboen maila, kontrola eta egoera, eta bestetik, indar hoik* sufritzen ari diren oztopoak eta kontradizioak.

Gizonaren eta, beraz, politikalarie en eginkizunak, indar produktiboen desarroiloa zuzentzea izan behar du. Desarroiloak, gizonaren osotasunera zuzendua izan behar du. Hau dena, tendentzia bat bezala. Osotasun hori noiz lortuko den ez dakigu; baina ba dakigu, behintzat, gure helburua* hori dela.

Desarroiloa zuzentzeko, desarroilo horren jabe goa, kontrola, eduki behar da. Alegia,* indar produktiboak zuzentzeko, indar produktiboen kontrola eduki behar da.

Politikalarie en lanak, beraz, indar produktiboen kontrola gero eta gehiago edukitzea izan behar du. Gu, aitzitik,* geure indar produktiboen kontrol hori galtzen ari gara.

Goazen orain, geure egoera ekonomikoa gaingiroki aztertzer a. Ekar ditzagun haren problemak.

DESKAPITALTZE A

Bueltatzen ez diren zergak* ez dira deskapitaltzearen iturri bakarra. Ba dira beste iturri batzuk ere: banketxeak, aurrezki* kutzak, seguritate soziala, eta abar.

Esate baterako, seguritate sozialak jasotzen* duen diruarekin zera gertatzen da: gehien bat kanpoan inbertitzen dela.

INDUSTRIA BERRIRIK EZ

Jakina, inbertitzeko dirurik ez badago, eta batez ere autofinantzazioaz jarraitzen badugu, ezin daiteke industria berririk sortaraz. (Industria berriak, aurreratuak, desarroiloaren maila ematen dutenak: petrokimika, elek-

tronika, tresneria fina, eta abar). Industria hauek diru asko eskatzen baitute.

Hemendik atera litekeen lehenbiziko ondorioa hau da: lansariak* ez direla haziko. Lansaria ez da kasualitatez sortzen; aitzitik,* indar produktiboen mailak fijaszen du. Ekonomia batek teknikorik behar ez badu, ez du tekniko en mailako lansaria emanen. Lansariek peoien mailan jarraituko dute.

Beste ondorio bat hau da: Industria berririk ez badugu, teknikaren maila hazten ez bada, ezin izanen dugu kompetentzi bidean jarraitu. Beraz, beste ekonomie en azpian geldituko gara, kontrola herritik kanpora joanen baita.

PRODUKTIBITATEAREN EGOERA

Gero eta gehiago, produktibitatearen bidetik abiatu dira ekonomia aurreratuak. Produktibitatearen hazkuntza industria berrie en ematen dutenez gero, gure produktibitate a ez da haziko. Gure hazkuntza gero eta urriago bihurtuz joanen da.

GURE INDUSTRIAREN AHULEZIA*

Estadu barnean, gero eta garrantzi guttiago du gure industriak. Metalurgiaren kasua guztiz nabarmena da. Hemengo industria indartsuena izan arren, Estadu bar-

nean gero eta garrantzi guttiago du.

Barkugintza industriarekin ere berdin gertatzen da.

KONTSUMO BORTXATUA

Estadua en ordaindu beharrean, Herriak ordaintzen duena adierazi nahi dut honekin. Adibidez, ikastolak: diru hau ez da gordetzen, eta, beraz, ez da inbertitzen.

Era honetan jarraitzen badugu, ez da zaila, gure etorkizuna zer izango den asmatzea: subdesarroilo bidean sartuko gara, beste ekonomia guztie en azpian eroriz*.

AURTIZ

dauku, deusku, digu
dauzkigu, deuskuz, dizkigu
gaude, gagoz



DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6. tatik 11. ra
Astegunëz: 7. tatik 11. ra.

KAFETEGI

AMALUR

RESTAURANTA



I. HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak

AHAIDE, **pariente**.
 AHUL, makal.
 AHULEZIA, makaltasun.
 AINITZ, asko.
 AINTZINAGO, aurrerago.
 AIPATU, aipatutako, aipaturiko.
 AITZITIK, **al contrario**.
 ALBAITERU, **veterinario**.
 ALDAPATSU, **patartsu**.
 ALDERANTZIZ, **al revés**.
 ALDERATU, konparatu.
 ALDIZ, ordea, ostera, berriz.
 ALEGIA, **esto es, es decir, a saber**.
 ALOKAIURU, aloqer, **salario**.
 ALOR, arlo, sail.
 ARAU, ala, **según, conforme**.
 ARAUERA, **según, conforme, en proporción**.
 ARDURA, axola, arta.
 ARDURADUN, axoladun, artadun.
 ARDURATU, axolatu, artatu.
 ARE, oraindik, **aún**, encore.
 AREATZA, **Villaro**.
 ARRAS, guztiz, zeharo.
 ARRASATE, Mondragoe.
 ARRUNT, **común, ordinario, corriente; completamente**.
 ASKI, nahiko.
 ASTIUNE, **ocio**, loisir.
 ATONDU, eratu, antolatu.
 BAHITU, **embargar, requisar**.
 BAITEROIAZAN, baitzeramatzen, eramaten baitzituen.
 BARAZKI, ortuari, **hortaliza, legumbre**, légume.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.
 BATZORDE, **comisión**.
 BATZUK, zenbait. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).
 BEHARRIZAN, behar, **necesidad**.
 BEHINEN, **primario, principal**.
 BELZTU, baltzitu, **denigrar**.
 BEREKIZIKO, apropiado, pintiparado, **choisi**.
 BEREZIKI, batez ere, batik bat.
 BIAISTERI, **Laguardía**.
 BILDUMA, **colección**.
 BILERA, batzar.
 BORTITZ, sendo, indartsu.
 BULEGO, **oficina**, bureau.
 BUZTIN, **arcilla**, argile.
 DATZA, **yace, consiste**. (Etzan **aditzaren forma**).
 DEA, da + a. (Azken letra hau aditzari ezartzen zaio galdeetan).
 DENDA, saltoki.
 DUKE, du nonbait.
 EGITURA, **estructura**.
 EGOBERRI, Gabon.
 EGUN, gaur.
 EI, omen.
 EKAIN, **junio**.
 EKIALDE, eguzki alde, **oriente, Este**.
 EKOIZPEN, **fruto, producto, resultado, efecto**.
 ELEBERRI, nobela.
 EMEKI, geldiro.
 ERABAT, guztiz, zeharo.

ERAKUNDE, **estructura, institución**.
 EREDU, **modelo**.
 ERIZPEN, **crítica, recensión**.
 ERORI, jausi.
 ERREPIKATU, **repetir**.
 ERRESKADA, **fila**.
 ERTZ, hegi.
 ESKUALDE, **comarca, región**.
 ETSITU, **resignado**.
 EUSKALKI, **dialecto vasco**.
 EUSKALTZAIN, **académico del euskera**.
 EZEN, ze, **pues**.
 EZTEI, eztegu, **boda, noces**.
 FROGANTZA, **prueba, demostración**.
 FROGATU, **probar, demostrar**.
 FUNTS, **fondo, substancia, esencia**.
 GAITZETSI, **reprobar**.
 GALDE, galdera, itaun.
 GANORE, ganora, kanora, **fundamento**.
 GORAIPATU, goratu, **elogiar**.
 GURA, nahi, gogo.
 HALABER, **igualmente, así mismo**.
 HASTAPEN, haste, hasiera.
 HAUJ, honeek. (**Hauak** aktibo, **hauk** pasibo).
 HAZIL, **noviembre**.
 HEDATUKI, **extensamente**.
 HELBURU, **fin, objetivo**.
 HERTSI, hestu.
 HETSI, hitxi, hertsia.
 HEZI, **educar**.
 HEZIKETA, **educación**.
 HIRI, huri, **ciudad, villa**.
 HIRIGINTZA, **ordenación urbana**.
 HIZPIDE, **discusión, conversación**.
 HOIK, horreek. (**Hoiak** aktibo, **hoik** pasibo).
 HOTS, a **saber, esto es, es decir**.
 HURA, ha.
 HURBIL, hur.
 HURBILDU, hurreratu.
 IGANALDI, igonaldi.
 IHAZ, igaz, jaz.
 IHIZI, **caza, chasse**.
 IKUSPEGI, **punto de vista**.
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRAULTZA, **revolución**.
 IRAULTZAILE, **revolucionario**.
 IRITXI, heldu.
 IRRISTATU, **resbalar**, glisser.
 IRTEN, urten, atera, jalgi.
 ITAUNDU, galdetu.
 IZADI, **creación**.
 JADANIK, **ya**.
 JARRERA, **postura, actitud**.
 JASAN, **soportar, sufrir**.
 JASO, altxatu.
 JAZO, gertatu.
 JO, **considerar**.
 JORI, ugari, aberats.
 KAZETALARI, **periodista**, journaliste.
 KIROLA, **deporte**.
 KONPROMISU, engaiamendu, **engagement**.

LANSARI, aloqer, alokairu, **salario, jornal**.
 LARREGI, gehiegi, sobera.
 LARREGITASUN, gehiegitasun.
 LAU, laño, **llano**.
 LAUDIO, **Llodio**.
 LAUTADA, ordoki, **llanada, planicie**.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LORTU, ardietsi, erdietsi.
 MAISTER, **inquilino, arrendatario**, locataire.
 MAIXEATU, gehiegi erabili.
 MAIZ, sarri.
 MARRAZKI, **dibujo**, dessin.
 MENDE, **siglo**.
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.
 MOTZ, **corto, romo**.
 MUBLE, **mueble**.
 NABARI IZAN, nabaritu, **advertirse, notarse**.
 NABARITU, **advertir, percibir, notar**.
 NOLATASUN, **calidad**.
 NORAEZEAN, **a la fuerza**.
 NOSKI, naski, **ciertamente**.
 OLA, fabrika.
 OLERKI, poesia.
 OMEN, ei.
 ORDEA, ostera, aldiz, berriz.
 OROKOR, **general**.
 OSAGILE, sendagile, mediku.
 OSTERA, ordea, aldiz, berriz.
 OSTERANTZEKO, **distinto**.
 OZEN, **sonoro**.
 PISO, estaia.
 PRESESKI, **precisamente**.
 SAL, saldu (**aditz laguntzaile gabeko galdeetan**).
 SALMENTA, saltze, **venta**.
 SARRI, maiz.
 SARRITAN, maizetan.
 SERORA, **sor, monja**.
 SOBERA, gehiegi, larregi.
 TAMALGARRI, lastimagarri.
 TANKERA, **estilo**.
 TENORE, ordu, aldi.
 TUPIN, lapiko, eltze.
 TXERTATU, **injertar**, greffer.
 UDALETXE, herriko etxe.
 UKAN, izan. (**Ukan** aktibo, **izan** pasibo).
 UNADA, bolada, denboraldi.
 UNTZE, iltze, itze, **clou**.
 URTARRIL, **enero, janvier**.
 XEDE, asmo, helburu.
 XIPI, txipi, txiki.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZENBATUSUN, **cantidad**.
 ZEHAR, gaindi.
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.
 ZERGA, **contribución, impuesto**.
 ZIEKO, **Elciego**.
 ZILAR, zidar, urrezuri.
 ZIN, **juramento**.
 ZUR, egur.

II. LEXIKO BATUA

ZUZENDARITZAK

Azkenurreko orrialdeak libre uzten daukun toki honetan, hitz egin nahi genuke geure irakurleekin, ANAITASUNAN erabiltzen dugun euskara batuari buruz.

Horrela, geldiro geldiro ikas lezakete irakurleek, zer eta zertarako den euskara batua, nola idatzi behar den, zertan gauden denok akort, eta zer gelditzen den oraino erabaki gabe.

Hauzi hau euskaldun guztiona da. Nola edo hala,

denok hartu behar dugu hartan parte. Horretarako, gauza ona litzatekeela uste izan dugu, irakurleekin elkar hizketan aritzea. Haiak galdeak egin, eta ANAITASUNA taldekook erantzun.

Arren eskatzen diegu irakurle guztiei, batez ere euskara irakasten ari direnei, galdeak bidal dietzagutela. Mila esker aldeez aurre.

Aditzaren batasunaz gauzak argiro (1)

Aditz batuari buruzko artikulu harrigarri bat agertu da urtarilaren* 2ko ZERUKO ARGIAN, Larresoro gipuzkoar idazle ezagunak izenpetua. Harrigarri esan dut, zeren,* hark 1968.eko *Euskera* aldizkarian egindako lana eta *Sustrai Bila* irakurri ondoren, bai eta horretaz harekin pertsonalki mintzatu ondoren, berak aditz batuaz uste zuena zeharo ezberdina zela pentsatzen bainuen.

Dena dela, artikulu mamitsu bat denez gero, eta batasunaren arlo aspergarri eta mila bider maixeturiko* hau behin betiko alde batera uzteko esperantzaz, uste dut ba direla zenbait puntu, argitan betiko jarri behar direnak.

Erabat* aho zabalik utzi nau, lehengo eta behin, Euskaltzaindiak aditz baturako izendatu duen batzordea* geldi dagoela esateak, hori inondikan ere egia ez delako. Horretaz bi bilera* eginak dira, bata Baionan, joan zèn udan, eta bestea oraintsu, Donostian, abenduaren azken egunetan. Bilera biotan pauso interesgarri asko eman izan dira; eta gehien gehienik erabiltzen diren formetan eta guztiok zeharo edo ia zeharo konforme gaudenetan, akordio oso batetara helduak gara.

Forma hauk* oso ugariak dira, eta, euskaltzain* gutien artean zabaldu ondoren eta berauen zuzenketa, ohar eta eritziak jaso eta gero, martxorako edo, Euskaltzaindiaren batzarre nagusian ofizialki ontzat hartuak izanen dira. Beraz, nik dakidanez, gauzak ez daude hain geldi.

Punturik errazenak, beraz, aurrenik garbitu nahi ditugu, gaitzenak azkenerako uzteko.

Eta goazen orain, lapurtera/gipuzkera arteko aukera zail delako horretan murgiltzera.

Baina, honetan sartu aurretik ere, neronek argi eta garbi utzi nahi nuke, oposizio edo kontrastasan hori ez dela osoa, alegia,* lapurtera modernoa ontzat hartuz gero —dakidanez, lapurtera klasikoaren aldeko proposamendu bortitzegirik* ez baitago—, beronen % 85 forma, gutien gutienez, gipuzkerazkoak BEZALAKOXEAK diratekeela, hots,* liburu normal batetan, ehun formatatik laurogei eta bost berdin berdinak direla, bai gipuzkeraz eta bai lapurtera modernoaz. Gu, lapurtera zaharra gabe, modernoa hartzera bultzatu gaituzten arrazoi sendoentako bat, hain zuzen ere, horixe izan da, gipuzkerarekin duen antza.

Beraz, lapurtera aipatzen dudanean, argi eta garbi geldi bedi, ez naizela mintzaten, gipuzkeraren kontrako den zerbaitez, gipuzkeraren «osagarri» den euskalki* batez baizik, hots, lapurtera «gipuzkoarriatu» batez.

Mundu guztiak dakikeen bezala, gipuzkera puntu askotan bizkaiera baino aberatsago, goxoago eta egokiago dela aitortzen dudana bezala, lapurtera are* bizkaiera eta gipuzkera baino osoago eta aberatsago dela aitortu beharrez nago; eta, berau frogatzeko,* aski* dateke ondoko esaldi hau gipuzkeraz nola ematen den ikustea (besterik ez jartzeagatik): *Ez dauat esan, baina hori askotan esan diat*. Gipuzkeraz: *Ez diat esan, baina hori askotan esan diat* (!?), hau da, beti ilun, argitasunik eta zehaztasunik gabe, lapurterak —eta honetan bai bizkaierak eta zuberorak ere— gauza biak ezin garbiago adierazten dauzkigun artean.

Beraz, begien bistan dagoen egia hau ikusi nahi ez dukeen zenbait idazle alde batera utzita, argiro dago, hizkuntz kalitatez edo nolakotasunez, lapurter eta gipuzkera ez direla bi sistema baliokide, eta bai, aldiz,* lehena puntu batzuetan bigarrena baino aberatsagoa dela.

Baina berau Larresorok berak ere ez dauku dudana ipintzen. Aldea, ostera,* aberastasun horren balorazioan dagoke. Diferentzia hori enetzat estilistikazko baliabide ezin ederragoa den artean, harentzat, noski, balio gabea dateke. Nekez etor gaitzke batera arazo honetan, egia, arrazoiak luzeek gabe, lumak eta obrek ez bestek frogatu behar daukutelako. Horregatik, lapurteraren duda gabeko abantailen balioa norainokoa den eztabaidatzen ibili gabe, beste puntu batetatik abiatuko naiz.

Baina berau, hobe dateke hurrengo artikulurako uztea.

XABIER KINTANA

daude, **dagoz**
dauku, **dausku**, digu
daukute, **dauskue**, digute
dauzkigu, **dauskuz**, dizkigu
gaude, **gagoz**

Analfabetismoa Euskal Herrian

«Dirección general de la enseñanza primaria» erakundeak* dinoanez, 1967. urtean, 15etik 60 urterarteko gizonen eta 15etik 50 urterarteko emakumeen artean, honexenbeste analfabetu egozen Euskal Herrian:

	%
Arabian	0,19
Bizkaian	1,42
Gipuzkoan	0,61
Nafarroan	1,61

Espainiako hirietan:* Madrilen % 1,33, eta Cádizen % 12,67.

«Amazonetako Indioak», liburuxka berria

Hona hemen LUR editorialak argitaratu dauan bigarren ipuinaren izena. Ipuin hau, bai presentazioz bai eta idazkeraz ere, «Bailearen arrantza» izeneko lehen ipuina baino hobeto dator. Lehenengo harek bezala, bigarren honek ere harrera ona izango dauala uste dogu, batez ere zortzitik hamabi urterako gazteñoen artean. Eskatzekotan: Editorial LUR. Villa «Zutik». Paseo Arbola. San Sebastián.

«Langileria historian zehar», liburu berria

ETOR editorialak argitaraturik, agertu berria da «Langileria historian zehar» liburu. Egilea, Mikel Ugalde. European zehar sarturik, Frantziako iraultza,* Ingalaterrako industri aldakuntzak, Marx eta Engelsen teoriak eta abar aztertzen ditu. Azken alderdian; Euskal Herria XVI, XVII eta XVIII. mendeetan,* Zamakolada, Matxinada, lehen eta bigarren karlistada eta abar estudiatzen ditu, bibliografia batekin bukatuz. Hizkuntza aldetik, nahiko pauso ona ematen dau euskara baturantz. Bestalde, azaleko G. Zumetaren marrazkiak* presentazio berezi bat ematen dautso liburuari. Eskatzekotan: «Ediciones Mensajero». Apartado 73. Bilbao.